



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratsko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, GOICOECHEA Itzi, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENSA Eibodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako Idazkari Izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2023ko apirilaren 28a
Afitxatze eguna : 2023ko apirilaren 28a

13. ERABAKIA: HITZARMEN BATEN IZENPETZEA BIL TA GARBI SINDIKATUAREKIN AUZOKO KONPOSTAGAILU BATEN EZARTZEKO (8.8 nomenklatura)

Auzapezak Bil Ta Garbi sindikatuak proposatzen duen auzoko konpostagailuentzako laguntza teknikoaren hitzarmen proiektua aurkeztu dio Herri Biltzarrari.

Honela, herriak konpostagailu bat izan du, parte hartuko duten auzoko bizilagun kopuruari egokitu. Izan du ere etxebizitza bakoitzarentzako behar den materiala, eta ekipamendua erabiliko duten biztanleentzako laguntza teknikoa, bilkura publikoen bidez, eta Ortzaizeko erreferente boluntarioentzako sostengua teknikoa.

Auzapezak zehaztu du, horren ordainetan, Ortzaize herria erreferente boluntarioak alzemateko komunikazio kanpaina egitera, zerbitzu teknikoekin konpostagailua ezartzera, konpostagailuaren erabilizailen zerrenda eguneratua atxikitzea, eta konpostagailua erabiliko duten etxebizitza guzietan konpostatze kolektiboaren aldeko engaiamendu gutuna izenpeazterazte engaiatzen dela.

Herri Biltzarrek, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **BAIMENA EMAN JILU**, Auzapezari Bil Ta Garbi herriko auzoko konpostagailuentzako laguntza teknikoarentzako hitzarmena izenpetzeko,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 14

KONTTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaimeko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/05/11an.